

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko, funtsezko jarduera nagusia ekoizpena da, hau da, bezeroen makronutrienteen arabera janaria prestatzea. Horrez gain, arazoak konpontzea ere garrantzitsua da, bezeroen behar edo gorabeheren aurrean erantzun egokia emateko. Beste jarduera garrantzitsu bat plataforma edo sareko jarduerak dira, bezeroek beren datuak sartu eta menuak aukeratu ahal izateko. Jarduera horiek guztiek balio-proposamena sortzen laguntzen dute. Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, adibidez teknologia edo aplikazioaren mantentzea. Hala ere, ekoizpena ezin da beste batzuen esku utzi, gure know-how-arekin lotuta dagoelako. Horri esker, negozio-eredua modu eraginkorrean funtzionatzen du.